



JESUS AURRAREN BEDERATZI-URRENA

Krispin Beobide

Iturria: *Jesus Aurraren bederatzi-urrena*, Krispin Beovide.
Francisco Mugerzaren moldizteguian, 1885.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/B/BeobideAurra.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**JESUS AURRAREN
BEDERATZI-URRENA**

AITA SAN FRANZISKOREN
SEME BEOBIDE-KO AITA Fr. KRISPINEK
EGIÑA

Bear dira baimenakin

TOLOSAN
Francisco Mugerzaren moldiztegian
1885 garren urtean.



APROBACION

Aprobamos la presente Novena mediante á que ha sido examinada y no se contiene cosa alguna contra la fé y buenas costumbres. Damos tambien nuestra licencia para su iinpresion y publicacion.— Vitoria de Diciembre de 1885. El Obispo de Vitoria.

ONEK BADU JABIA

Bederatziurren au eskaintzen diet gure Jesus aurraren maitatzalliai, berak aur txiki egitian Jaungoikotasuna utzi gabe jarri zizkigun birtuterik garaienen ispilluan begiratuta, arako anima jaieratsu aiek areta geiago sendotu dezaten espiritu ta zerurako bidian segur Jesus idurituz oña azkartu ta egiteko guzien gañekua, zeña dan animaren salbazua beraren laguntzarekin iritxi dezaten.

Egin liteke bederatziurren au noiz nai edo urteko edozein sasoitán. Baña sasoirik egokiena onetarako derizkiot dala abendu santuko denbora. Abenduko edozein astetan ta guziez gañ gure Jesus Jaungoikuaren seme bakarra gizonakgatik aur txiki egin zan egunetik asita ondorengo bederatzi egunetan.

Egun oriek direlako beste guztien artian egokienak buruan ondo erabiltzeko gure erospeneko misterio ezkuuak ta Jesusek lagundurik ikasteko Belengo aurraren eskolan kristauak egin biar duan bizimodua Jaungoikuaren asmuak betetzeko ta gauza guztietan bere gogua egiteko, zeña egitian bakarrik arkitzen da egiazko santutasuna.

Jesus baño aur garbiagorik, ezin ditekian bezela, ezta iñoiz agertu izan ta ezta agertuko ere besterik munduan. Ona zergatik urte buruan bederatzi egunian aur garbi onen ondoren ibilltziarekin nork bereganatzen dituan zeruan sartzeko biar diran bitarteko guztiyak. Jesus aurraren seña laster zeruak ezagutzen du, eta zeruko atia lasa igarotzeko beste seña biarrrik batere biar eztu. Beragatik, zuk, Jesusen soldadua, beraren maitatzaille ta adiskide biotzekua, espiritu alai ta gogo onarekin ekin zaiozu lan ariñ oni. Labur ta ariña da nekia eta saria betikua. Beraz ariñ ta txikia dala ko lana, ez deiozula nekiari barkatu.



JESUS AURRAREN BEDERATZIURRENA

Gurutze santuaren + señaletatik &.

ALABATU ETA ADORATU DEZAGUN JESUS
AUR JAIO-BERRIA.
ORAIN ETA BETI. AMEN

ATO KONTRIZIOZKUA

Nere Jesukristo Jauna, Jaungoiko eta gizon egiazkoa; nere Egille; nere Aita eta nere Salbatzallia. Zugar sinisten ta esperatzen detalako; zu maitatzen zaituztalako nere biotza, nere anima ta gañerako kriaturak baño geiago: damu det Jesus, ona, damu det biyotzetik zu ofendituaz. Bai; zure ontasun guzizkuari begirata, txit nago, Jauna, damuturik zuri egin dizkitzutan ofensagatik. Naiago det zu berriz ofenditu baño nere bizitza eman. Naiago det edozer gauza emendik aurrera zure amoriuagatik eraman, ezen ez zu berriro ofenditu. Ez arren, Jesus ona, ez arren bekataria naizalako ukatu niri zure errukia, bada aur txiki egiñ ziñan (gaur) neri pekatuak itxi zizkidan zeruko atiak idikitziagatik. Beragatik, Jesus umilla, ementxen natorkizu umill ta zure ontasunian fiyaturik bederatziurren onetan irixiko detalakuan zure biotz gozuan nere gaitzen erremediua; emendik aurrera zu obeto amatu eta zurekin bat-eginiñ, zurekin gero ere zeruan izan nadin. Amen.

Egunero asieran esan biar dan ORAZIUA

O nere anima! pozaren aundiz egizu gañez, zeren gaur jaio dan Zeru-lurren Egillia, gizonen Salbatzallia. Nundik? O Jesus aur bedeinkatua! nundik guri onenbeste mesede? Bost milla urteren mugan agertzen zera munduan, toki txit gordian, Zu, beren biotzeko-indar guztiaz Aitalen santuak itxoron zinduena. Nork eztizu zuri egingo ongi-etorririk

alaina? Etorri zera egiaz gure negarrak ixiltzera; gure malkuak legortzera; gure zotiñak gelditzera. O Jesus! aur bedeinkatua milla bider. Etorri zera gure penak gozatzera; gure nekiak ariñtzera; gure eziñ-eginetan, guri laguntzera. Nor poztuko ezta aur onek jaiotzan munduan egiten duan lenbiziko sarrera onetan? Zeru guziya dauka berari begira. Lurra ere dauka orobat begira. Aingerudiak berriz adoratzen dute odei guztien gañetik Aita betikuak ala agindurik. Eta zu Belen erri txikia dirudizula, etzera orrengatik deitua izan biar Judeako beste erri bikañen artian azkenekua, zeren zugandik irtengo duan Israelko erriak gidatuko dituan burua.

O Jesus ona! O Jesus aurra! Nere biotzian daukazu erri bat, Belen baten biarrian zure etorreraren gose dana. Belen-en izenak esan nai du «ogi-etxia». Bada ogi-etxian jaio ziñan Zu aingeruen ogia deitzen zerana. Eta izanik Zu gure animen gosia kentzeko janaririk onena; sar zaitez, sartu gure biotzetan eta ken egizu beñguan lureko gauzen gose-egaria. Iguzu, bai, zure grazia, zuk bakarrik amatzeko beste gauza guztien gañ. Bakarrik etorri ziñan, zeren ez dezun lagun biarrik, zerutik mundura; bakarrik guk ere nai zaitugu ta billa gabiltz zu bakarraren, zergatikan zu zeraden bakarrik gure biotz bakarrari ogia emango diozuna.

O Jesus! bide luzia daukagu zerura juateko; baña badakigu zer egiñ nekia ariñtzeko. Eskatuko dizugu bakoitzak zuri ogia biderako eta zure laguntza oña azkartzeko; bide gogor eta kaskar, erorsamur oek labaiñ ariñian ta neke antsi gabian igarotzeko; gero azken egunian zure arpegi ederra begiz-begi betikoera guzian zeruan ikustera len-bai-len juateko. Bada bederatziurren onetan ez det beste asmorik, ez beste azkenik, Zu zeruan ikustia baizik. Izan dedilla, O Jesus! gure zoriona zu zeruan ikustia. Amen.

Enter errezatzen dira iru Aita Gure, iru Abe Maria eta iru Gloria.



LENENGO EGUNA

Jesus Aurraren jaiotza.

Izkiribiturik utzi zuten Igarliak Belenen jaio biar zuala Mesiasek. Alere Jose eta Maria bizi ziran Nazaret-ko erri txikian; eta Mariaren aurgeteko egunak alderatuakgatik, ez batak eta ez bestiak etzuten uste izan Nazaret utzitzerik. Nun jaioko ote da, o Maria! zure sabeleko semetxo ori? Maria zan, pobria bezela, txit gutxi ezagutua inguruko jendiaz bere jatorriaz. Jose arotzaren emaztia bezela ezabutua bazan ere auzuan, etzan ezagutua Erregien odolekotzat, zan bezela. Alaz guztiaz ere Mariak izan biar du Mesias-en arpa, munduak itxoroten zion David Erregiaren jatorrikuaren semiaren ama. Ondo adierazoko dio munduari guzi au Jaungoikuaren probidentziak.

Aizez buiatutako Enperadore bati sartuko zaio buruan jakin biar dituala bere mendeko guztien izenak, zenbat zeduzkan bere agindiaren azpian, eta bidez bakoitzari zerbait kenduta nola dirutu al zitekian. Mundua dago agintzen duanaren mendian. Eman zuan adia Enperadoriak, edo zerbait jakiñik lenik nun jaio biar zuan Mesiasek, edo ustez-ustegabe, jo zezala jendiak Belen, aren asmuak betetzeko. Ona zergatik bildu zan gizonkia Belenen, gizon bakoitzak Erregeren liburuan bere izena ezartzekotan.

Zazpireun urtez aurretik adiazi zutena Igarliak emen egiztatuko da.

Jose eta Maria ere bestiak bezela utzirik Galileako Nazaret-ko beren erria dijuaz Belena Judeako errira. Baña, ai! Belena aiek eldu baño len etxiak eta ostatuak betiak daude! nun igaroko ote dute neguko gau illun, luze, otz ta gogorra? Jose eta Maria biak pobriak eta nekiak neke asko etzerala Maria arkitzen zan aurra argitaratzeko azken egunetan! o! zenbat estuasun bideko nekiaz gañera orain eraman biarrak berri-berriro!

Egun asko igaro zituzten bidian, ta nekatuak bazeuden ere, erritik kanpuan billatu biarran arkitu ziran aterpe bat. Aterpe au izan zan David erregearen jauregi zar eroritako orma zar baten arrimuan arkitzen zan legorpe bat, astodun ta artzaiak beste legorrik etzutenian albistatzen zutena maiz. Ona nora gidatu zituan Jaungoikuak bere jakinduri muga gabian, eta ona nun jaio zan *kisiei* illaren, au da: gure abenduko illaren ogei ta bostgarrenian munduko Salbatzallia negu gogorreko gauaren erdian.

Amarik onenak bezela, adoratu onduan, artu zuan Jesus aurra Mariak besuan oial-zapi txuri garbietan bildurik jarri zuan gero askatxo

batian, zeñak artu zuan pozik Jaungoikuaren seme bakar gizon orduan jaiua seaskarik onena merezi zuana.

O Jesus! ongi etorria egiten dizugu eta askatxuan bazaude ere etzanik, Jaungoikotzat ezagutzen zaitugu eta adoraten.

Nor ezta arrituko aur au ikusita? Jaungoikuaren semia Belen-en jaio da, ta iñork eztaki! gañian dauka lurak bere Egillia! eta lurrekuak ez daki-te! O gure Jaungoikuaren misterio gordiak! O Jesus! aur txiki agertzen bazera ere, ezagutzen zaitugu Jaungoikotzat. Ezagutzen eta amatzen zaitugu; amatzen ta adoraten zaitugu. Orain bada eskatzen dizugu amorio are aundiagoko bat eta zure umildade paregabia iduritzeko laguntza. Baita ere onekin batian bederatzaurren onetan eskatzen dizugun mesede berezia, baldin bada zure gloriarako eta gure animen onerako. Amen.

Emen bakoitzak jasorik biotza, Jesus aurrari eska biziaio bederatzaurren onetan nai duan mesedia.

Eguneroko azken Oraziua

O Jesus ona Jaungoikuaren seme egiazkoa izanik, gaurko egunaz, gizonagatik gizon egiñ ziñana! Irutasun guztiko bigarren persona zerana, arkitzen zera, zerorren naiaz, seaska ordeko askatxo orretan. Umill ta biartsu, Zu, ezertxoren palta gabe zeru-lurren jabia zerana! Orain bee bazaude ere, ni buiakorra izanik zaduzkat goikotzat eta nere Jaungoikotzat.

Beraz orain, nere Jesus aur txit maitagarria, nere amoruia agertu nairik zuri, adoraten zaitut zapitxo orietan loturik bazaude ere. Egia da, nere biotza oso-osorik zuri emanik ere, ez dizutala beñere merezi dezun amorio eta adoraziorik agertuko. Zuk ordia, nik neronek baño obeto dakizu nere argaltasunaren ta oztasunaren berri. Beraz, Jesus on eta maitagarria, erakutsi nazazu umilla izaten zure antzera; gogozko biartsu izaten zure idurira; Jaungoikuaren naia egiten zuk adiazi diguzun bezela; otz-beruak eramaten zuk bezela. Badakit Jesus ona, badakit zer nai diazun esan zure ao txikia zabaldua mingaiñtxo garbi orrekin: *nik maitatzen det, ni maitatzen nauena*. Ni agertu nintzan umill, zu ere izan zaitte ni bezela umilla ibilleran, itzketan, jantzian. Ni jaio nintzan pobre eta guztiaren biarran; izan zaitte zu ere pobre etxian, kanpuan, janian, edanian, jantzian edo soñian. Zeren onetan guzian ez segitzera niri, ez dezu iñoiz ere nere naia nik nai bezela egingo. Garbitasunak au guziya eskatzen du.



O Jesus ona! bederatziren onetan askatxo ortatik jasorik begi beltz argi oriek ikusten dituzun bezela gure premiak, iguzu laguntza, guzia dezakezun Jaungoikuaren semia zeran aldetik. Bota ezazu ere begiratu bat Ama Eliza santaren biartasunetara. Sendotu ezazu Eliza; bizitu ezazu kristauen fedia; argitu itzatzu adimentuak; desegin erejiak; indartu fededun guztiak eta zanpatu zure elizaren etsaiak. Irten dedilla zure Bikaria lurrian inguratzen duten etsai gogorren artetik garaitzalle. Pakia kantatu zuten aingeruak zu Jaio zinan egunian; pake ori nai genduke orain gure artian. Bai, bizi gaitezen orain, zuk lagundurik, biotzeko pake santu orretan, zuk nai dezun arte lurrian, aingeruak kantatu ziguten bezela zoriona guri zure jaio berrian, orobat gozamen pakezkua goza dezagun betikoe-ran zeruan. Amen.

BIGARREN EGUNA

Aingeruen agertziak.

Ikusi degu nolako sarrera egin zuan munduan Jaungoikuaren semiak. Belengo jendiak arkitzen ziran lo pisuan Jesus jaio zan orduban. Baña etzuan nai Jaungoikuak inor oroitu gabe gerta zedin misteriozko gau ura. Aberats, aundizki ta Erregientzat gauza ezkutu gordia izatia nai bazuen ere, zeñak biotzeko antsi aundi gabe arkitzen ziran Mesiasen etorreraren; baziran ordia beste batzuek, naiz izan biartu ta munduak ezertakotzat iduki ezagatik, Salbatzalliarene etorrerari itxoroten ziotenak biotzaren biotzenetik. Eta oriek, nor ziran? Artzai batzuek, anima garbiko Jaungoikuaren egiazko adoratzalliak, zeñak zeuden antsiak Mesiasen etorrerari begira; zeñak ere bazekiten Igarlien esanaz gain Belenen biar zuala jaio. Ona zergatik dion San Lukasek: toki artan arkitzen ziran artzaiak ardi zai, kanpuan gabian beillari, txandaka beren artaldiak zaitzen. Leku au dago Belengo erriaren gañeko aldian ipar alderunz. Berenez da leen ospela nora ere biltzen ziran artzaiak otz gogorraren igesi, lapur ta otsuengandik ardiyak gordetzera. Leku artan zaitu izandu zituan beste ordubere Aitarene artaldiak David Erregiak.

Artzai aien borda edo txaola inguruan ikusi zan odei garbi bat eta odei aren erdian Jaungoikuaren Aingerua. Askoren ustietan au zan San Gabriel Aingerua. Beraz inguratu zituan artzai on aiek argitasun eder ark eta gizon pakeotsu aiek arteraño inoiz ere ikusi gabeko argi ark izutu zituan izugarri. Baña esan zien Aingeruak: «ez izutu artzai onak; berri txit onarekin natorkizue: zeren gaur bertan, Daviden errian jaio zazute Salbatzallia, zeña dan Kristo Jaunaren Untatua». Au da Mesias, Igarlien bidez adiazia Jaungoikuak munduari; zuen guztien Maisua, ta Daviden jatorrikua bezela zuen Errege egiazkua; eta ona ematen dizutet seña bat bera ezagutzeko: arkituko dezute aur bat oial-zapietan bilduta askatxo batian etzanik. Au esan ta beriala asi zan Aingeru taldea kantuz Jaungoikua gloriaz betetzen ta alabatzen: «Zeru goenetan gloria Jaungoikuari, eta pakia, lurrian gizon gogo ondunei». *Gloria in altissimis Deo, et in terra pax hominibus bonae voluntatis.*

Jaungoikuaren semiaren gizon egitia da misterio bat beraren gloria-rakua zergatikan bere izena adituko duten gizon guztiak; baita ere gizonari pekatuak emanikako desonra desegingo duelako; baita ere muga



gabeko pekatuaren ofensa mugagabeko merezimentuakin pagatuko diolako beraren Jaungoikotasunari. Azkenik bere seme gizon egindakuan, Jaungoikuak ikusten duelako beraren aunditasunaren diño dan adoratzalle bat.

Jesusen jaiotza da misterio pakezko bat guretzat; gizon egin dalako pekatariak Jaungoikuarekin elkartu ditezten. Pakia kantatu digute Aingeruak, paketu dedin gizona Jaungoikuarekin pekatua deseginaz. Pakia gizonak elkarrekin karidadiaren lazo senduen loturen bitartez, zeñak bakarrik paketutzen ditu gizonak elkarrekin. Pakia gizon bakoitzari nai badu egin, Jaungoikuak lagundurik, Jaungoikuak nai duena. Deituak badire ere dianak pake onetara, ez dira dianak itsasten onetara. Gogo ona ez dute denak ipintzen eta gogo onik ez duenari, ez diote Aingeruak pake eskaintzen ta opatzen.

O Jesus! pakiarekin zure etorreran gonbidatzen gaituzu. Etxiñan bada gizon egin Aingeruekगतिक, baizik gugatik alere poztutzen dira gure onaz, gu aren zeruko glorian partedun izatiaz. Iguzu Zerutarrak kantatzen diguten pake ori iristeko gogo on bat eta gañera zeruan aiekin batian zu zerori ikustekua. Amen.

IRUGARREN EGUNA

Artzaiak Belenen.

Goazen gaur Belena, kristauak, goazen gaur Belena bada artzaiak idikitzen digute bidia. Jarrai deiegun. Adu ondorion Aingeruen kantua artzaiak, eta kantuz zeruronz airatzen ikusi aiek, gelditu ziran arpegizarpegi bata bestiar esaten «igaro gaitezen Beleneraño». *Transeamus usque Bethleem*; eta dakusagun Aingeruen esan au; dakusagun ze mirari dan au Jaungoikuak bere mandatarien bidez adiaz diguna. Au esanta korri ta lasterka, antsi-antsika jo zuten Belen. *Festinantes*. An arkitu zuten pamily eder bat, ez aundizkien etxian, ez Erregien jauregian, baizikan Aingeruak adiarazo zien bezela arkitu zituzten Maria eta Jose eta aurtxo bat.

O zorioneko artzaiak! zer ikustera juan zerate Belena? Zer ikusi dezuten esaiguzute.— Ikusi degu dontzella gazte garbi bat, aur jaio denaren ama; eta ikusi degu gizon bat Aingeruaren antz geiago duena garbitasunian gizonarena baño. Baña ikusi degu beste ikuskari bat iñoiz iñoizko gizonak lurraren gañian ikusi ez duana. Aur eder bat lastuaren gañian, zapitxo batzuek beste apaingarririk gabe, negu gogorrian, otzaren mendian, asto baten eta idi baten asnas bero-usaikuak berotzen duela.

Gauza arrigarria eta misterio guztien gañekua! Biartasunik aundienian aur bat jaio dala ikusita, artzaiak, jakinduriarik gabeko gizon aiek, aingeruaren esanaz beste gabe, ikusi bezain laster, umillatzen dira Jesusen oñetan, ezagutzen dute Jaungoikotzat eta adoratzen dute beriala. O artzai zorionekuak! Maria, Jose ta aingeruen urrengo beste gizon guztien artian autu zinituztena Jaungoikuak bere seme bakarraren adoratzalle izateko. Ongi adiarazten diguzute zer biar degun egin aur jaio dan orrekiñ. Eskaiñi ziniozkatzuten zuek zuen biotzak amorio guztiarekin; ona zergatik amorio betikuak, Jesus aurrak pagatu zizuten zuen arenganako onginai ura, amorio are aundiguarekin. Beragatik artzaiak Jesusen bendiziuarekin aldegin zutenian Belendik, dio Ebanjeliuak: aiek esana, ikusiaz gañ, adituaz beste gabe aditzen zutenak miresturik zirala gelditzen.

San Jose eta Maria txit santa poztu ziran artzaiak egin zien albiste alaiarekin, baño oraindik geiago mirestu ziran aien aotik jakitian nola aingeru zerukuak eman zien aur jaio berri arren adia. Miragarritzko gauza oek



eta beste asko gorderik zeuzkan Mariak biotzian. Beraz jaungoikozko gizon aiek aldegin zuten Belendik Jaungoikua alabatu ta gloriatzen aditu ta ikusi zutenaz gañ. Orain, kristauak, ikusi degu nola agertu zaien Jesus aurren aurreneko, ez aberats ta aundizkiai; ez erregiai, baizik artzai biartsu, jakintasunik etzutenai. Badago emen guretzat burua autsteko aina gai. Onekin adiarazten dio Jaungoikuak gizonari, ez diola ainbeste begiratzen jator onari, nola biotz on ta jainkotiari. Amen.

LAUGARREN EGUNA

Jesusen Izenaz.

Berezi zuanian Jaungoikuak Abraham bere anaien artetik, Nazio berri baten Aita egiteko, zeñak izan biar zuan Jaungoikuaren aginte aundien guardatzalle, zeñaren biotzetik jaio biar zuan Mesiasak, nundik ere zabaldu biar zuten mundu guztira Jaungoikuaren bendizio ugariak; eta ona zergatik beste edozein nazioengandik berezitzeko eman zion Jaunak seña bat. Au zan «zirkunzisiua». Orain lege berrian bataiatuak bezela, lege zarrian seña onezaz sellatuta Jaungoikuaren semiak, ala etzirenetatik, ezaungarri jarria.

Jesus Jaungoikuaren semiak etzuan odolezko garbitze arren premia-rik, zeren, beste gizon Adanen jatorrikuak bezela, etzuan Adanen pekatuan parterik. Baña Jaungoikuaren semiak, nai zigun erakutsi gure aurrian Bera ispillu ordez jarrita, nola biar diyogun legiari begiratu; nolako begiramentua izan Jaungoikuak agindua egiteko. Beragatik umillatuko da baita ere ala biar bada odola ixuri. O aur miragarria! pekatuaren antzik sekulan izan gabe pekataria bezela odola ixurtzeraño umillatu ziñana!

Zirkunzisioko zeremoni ontan jartzen zioten aurrari izen bat. Beraz jaiota zortzigarren egunian jarri zioten aurrari izena Jesus, zeñak esan nai du Salbatzallia. Au da izen bat zerutik ainbueruak eman ziona Maria bere amaren sabelian orañdik sortu baño lenago, au da izena, zeña aditzian zerua, lurra eta inpernua belaunikatzen dirana. Zerua eta lurra Bera adoratzeko; inpernua berriz ikararen aundiz. Izen onek idikitzen du zerua, itxitzen du inpernua, illak piztutzen ditu eta lotutzen demoniuak. Au da izen bakarra zeñaren bitartez gizona salbatzen dan. Au da izen santua, izen garbia, izen indartsua, izen gozua eta guzia izen maitagarria. Oni biotzez deitzen diotenak alkantzatuko dituzte ondasun betikuak, zeruko laguntzak, eta pekatuen barkaziua. Jesusen izena da arma sendua, ezin eginetan, animako eramankisun, arrisku ta bizitzako biartasunetan. Jesusen izena da ere argia, da animaren alimentua. Espirituko illuntasunak dakizki desegiten eta birtutian aurreratzeko daki ematen indarra naikua. Beste janariak nere animarentzat, dio S. Bernãardok, dira geza-miñak Jesusen izenaren olio gozuaz untatzen ezpadire; ez dute gustorik izen onekin zerbait gazitu gabe.

Ezta libururik, ezta sermoirik, ezta kanturik gusta ditekianik Jesusen izendatzen ezpada. Jesusen izenak gozatzen du auba eztiak bezela; kilika-



tzen du belarria kanturik ederrenak bezela; poztutzen du biotza itzik alaiena bezela: Jesusen izenak gaitz guztiak dakizki sendatzen. O kristaua! animako eta gorputzeko gaitz guztietan billa ezazu Jesus, zeren au dezun sendatzallerik onena. Ez da erremediorik Jesusek eman ez dezakianik.

O Jesus! izan zaite Jesus guretzat. Salba gaitzatzu guztiok; bada gu salbatziagatik ixuri zenduen odola, aurra ziñala, gu salbatzeko artu zenuan Salbatzalliaren izena. Salba gaitzatzu emen zu adoratzera gotozanok. Beti beti zu zeruan goza zaitzagun. Amen.

BOSTGARREN EGUNA

Erregien Adoraziuz.

Eldu gera bederatziruuren onen bostgarren egunera. Egun aundiya da gaurko egun au, zeñian jartzen zaigu gure kontsideraziora. Errege santuen adoraziua. Diño da aur jaioko berria, zeru-lurren Jabia eta Erregien Erregia onra, alabantza eta adoratzeko guztiyeren.

Maria, Jose eta aingeru zerukuak, oen ondoren artzaiak ikusi ditugu nola adoratu zuten Jesus Belenen, orain, berriz oen ondoren datoz Errege Maguak beste ainbeste egitera.

Diyo bada Ebanjeliuak: Herodes erregeren denboran nola jaioko izan zan Juda-ko Belen-en Jesus. Ona nun etorri ziran eguzki aldetik Maguak Jerusalem. Persiyan eta Kaldean Magen izenaz izendatzen ziran denbora aietan, arako jakintsu, filosofo, Zoroastroren ikasliak, baita ere Sazerdotia. Errege Maguak ziran gizon jakintasun aundikuak, gizon prestuak. Persiya-ko Erregiak tronuan eseri baño len Maguen mallatik igaro biar zuten. Ona zergatik Tertulianok eta onekin batera S. Ziprianok, S. Kriostomok, S. Basiliok, S. Jeronimok eta beste asko elizaren gurasok ematen dien Maguai Erregeren titulua. Ala dirudi ere zirala, batez ere begiratzeko badiegu egin zuten bide luzian, ekarri zituzten aberastasunai, eta lagun edo morroi zaldunai. Orañdik geiago begiratzeko badegu iñungo erregeren bildur gabe jotzen dutela Jerusalem, nun ere arkitzen zan Herodes.

Errege Maguak ziran irutaraño: Meltxor, Baltazar eta Gaspar. Oen etorreran egiztatu zan arako David erregiak irurogeita amaikagarren salmuan izkribiturik utzi zuen ura: «itsasuetako Erregiak eta ugarte urrutietakuak eskañiko diozkate eskañtza aberatsak, orobat Arabiako ta Sabako prinzipiak».

Baña, zertara dijuaz Maguak Jerusalem? Dijuaz aruntza izar eder batek gidaturik, nola Mesiasen etorreraren sona zabaldua zeguan, Jaungoikuaren semiari, ongi etorriarekin merezi duan onra ematera.

Beragatik Jerusalem galdetzen dute, iñungo gizonen bildur gabe: «nun da juduen errege jaioko berriya? Guk ikusi degu eguzki aldi bere izarra eta etorri gera esku-erakutsiak bera adoratzera».

Au jakitian deitu zituan Herodesek Sazerdote eta dotore jakintsuak eta galdetu zien: nun jaioko biar du Mesiasak?— Erantzun zioten denak; izkribiturik dago, Belenen jaioko dala.— Au aditzian Herodes errege gaiz-



to eta anbiziotsua bildurtu zan eta deitu zituan ixilik bere etxera errege Maguak eta egin zien kargu aieri, noiz agertu zitzaien izar ura. Gero esan zien falziyaz: «zuazte ta galde zazute seme aurrax, eta arkitzian, bueltakuan, emango diazute berri, nik ere, jua ta aduratu dezatan».

Irten ziran bada Maguak Jerusalemik eta ona nun berriro agertzen zaien lenagoko izar ederra. Txit asko poztu ziran izar ura berriz ikustiarekin, jarraitu zioten berari eta azkenik gelditu zan izarra Belenen, Jesus aurra zeguan etxiaren gañian. Sartu ziran etxian ta arkitu zituzten seme-txua eta bere ama. Beriala lurrian aozpezturik aduratu zuten Jesus. Gañera egin ziozkaten presente urria, intzentsua eta mirra. Gabaz, lotartian artu zuten erantzuki au: ez zitezela biurtu Herodesengana. Beragatik beste bide batetik itzuli ziran beren erreinutara.

O Jesus aurra! Erregiaz erregen Erregetzat ezagutua; guk ere ezagutzen zaitugu aien antzera zeru-lurren Errege bezela eta aduratzten zaitugu, al degun moduan. Baña, zer daukagu zure diño dan gauzarik zuri eskaintzeko? —Ah! badakit, Jesus ona, badakit zuri zer eskaiñi. Urrerik, intzentsu usai gozokorik eta mirrarik ezpada ere, oriek guztiak baño zure gogokuagua nola dan biotza, biotza eskaiñiko ta eskaiñtzen dizut. Zu aduratu ondorian beraz, ar ezazu nere biyotza; elkartu ezazu zuriarekin; beti elkarturik izan ditezen orain eta gero. Amen.

SEIGARREN EGUNA

Jesus, Jose eta Maria Ejitoko bidian.

Ikusi genduan atzoko egunian nola errege Maguak jua ziran Belena Jesus aduratzera, eta nola Herodesek esan zien Errege Santu aieri, eman zekiota Jerusalemia biurutzian aurraren berri. Baña nola errege aiek Jaungoikuak gidatu bai zituan beste bide batetik Jerusalem utzita beren etxietara; bitartian Herodes arkitutzen zan, lepua luzatuz, oñ mutur gañ, noiz baño noiz, egunetik egunera ikusiko zituan Maguak, aien aotik jakin naian Belengo aurraren berriyak. Azkenik bada ezagutu zuanian bere faltziak faltziatzko bidian galera eman ziola eta bere arte-mañaz gaizki baliatu zala, aserre gorrian sartu zan, eta gaiztua jarri zan bertatik bengantza artzoko Jaungoikuaren semiaren gañ.

Beragatik, Jesus il naiaz, eman zuan aginte bat «bi urtez betikako semetxo guztiak, bai Belenen ta bai erri onen inguruetan arkitzen ziranak bat bakarrari barkatu gabe, iltzeko. Baña alperrik dabill Herodes. Aita zerukuaren eskuetan dago bere semetxuaren suertia eta errege gaiztuaren aginduak ezta atxituko.

Aingeru batek, errege Maguak aldegin zutenian andik, gabaz lotartian esan zion Joseri: «jeiki zaite; ar ezazu aurra baita ere bere ama, eta zuaz igesi Ejitora; egon zaite an, nik berriz esan arte; zergatikan Herodes dabillen aurraren billa, aurra ill nairik».

S. Joseri agintzen diyo Aingeruak pamilyako buruari bezela, zeñaren kontura jarri zuan Jaungoikuak bere semia eta semiaren Ama Joserren esposa Maria.

Beriala Aingeruaren agindua egiteko jaiki zan Jose, artu zituan Jesus eta Maria eta jarri ziran gabaz Ejitorako bidian. Berrogei legua egin biar izan zituzten; alaz guztiaz ere S. Jose ezta batera desanimatzen, egiten ditu, bai, prestamenak biderako eta bidian jartzen dira Maria asto gañian eta Jesus semetxua amaren magalian eta Jose asto-mutill. Badago, kristauak, zer pentsa emen, naikua gaia ordu luziak igarotzeko gogorazio santu eta guretat ikasbide ederretan.

Aita S. Joserren obedientzia alde batetik; Mariaren umilitasuna bestetik eta Jesus gure Salbatzalliak lenbeziko egunetan, jaiota ta beriala ematen digun ejenplua beste aldetik. Ez begiratzten diote bideko nekari; ez ordu desgaraiari; ez otz-beruari; ez Maria aur-egin berriaren argaltasunari; ezta ere aurraren biguntasunari. Alde guztietatik arriskua, arriskuaz, bideko



nekiar eta ikusi biar aundiyaz azturik Jaungoikuaren agindua egiteko, beste gauzari edo trabari begiratu gabe, ekiten diyote bidiari, ez illun, ez goguz kontra, baizikan alai, gogo onaz ta Jaungoikua alabatuz, guztian bere naira jarririk.

Bi gauza beraz egun onetan jartzen dira gure konsideraziora. Herodes erregeren krueldadia, eta Errege guztien Erregeren ta pamilya sagradu guztiaren paregabeko umildadia. Inoiz lurrian izandu dan erregerik gogorren ta odol-zaliena bezela jokatu zan Herodes. Bada Jesus ill nairik, illarazi zituan eunta berrogei milla seme, mutiltxo, bi urtez beragokuak. Inoiz aditu da onelako gogorkeririk?

Beste aldetik ikusten degu Jaungoikuaren semia munduko errege baten igesi, igizon baten igesi gizona Salbatziagatik gizon egin dana!

Badirudi etzeukala Jesusek eskurik edo beste biderik errege gaiztuarengandik libratzeko. Baña, ai! Jaungoikuaren bidiak, bide ezkutua dira. Orduan etzuan bengatu nai, orduan etzuan justizia egin nai, baizikan umiltasunian erakutsi guk zer biar degun egin. Gure ispillu jarri zan Jesus. Begira gaitezen maiz ispillu onetan.

Iduritu ditzazun Jose, Maria ta Jesus, Jaungoikuaren gogua betetzen erakutsi ziguten bezela, aien antzera egiñaz. O pamilya sagradua! Iguzute grazia gauza guztietan zuek bezela, guk ere Jaunaren gogua egiteko emen, gero elkarrekin zeruan izan gaitezen. Amen.

ZAZPIGARREN EGUNA

Aur inozentien martiriuz.

Bere biziko aserrian sartu zan Herodes erregia jakin zuanian nola errege Maguak, iñungo berririk ari eman gabe, beste bide batetik aldegin zuten Belendik. Ezagutu zuan burlatu zutela eta Jesusen gañ bengatu naiaz, erabaki zuan eta agindu: bai Belen-go, nola bere inguruetako, bi urtez berako semetxuai bizia kentzia. Igaro zan ordukoz Jesus Ejitora. Utzi deiotan orañ lekua S. Agustini.

Aita S. Agustín gloriotsuak esaten digu:

«Jesusen jaiotzarekin asi zan negarra, ez zeruan, baizikan munduan; eragiten zaie ama askori negar. Ama askori negarra eta aingeruai ematen zaie poza, aurrai berriz zerurako pasia. Jaungoikua da jaiio dana eta dator munduko malizia zanpatzera; ordia biar zaizka aur inozentiak bitima. Ill biar dira arkumetuak, zergatikan bidolts garbia ill biar dan gero gurutzian munduko pekatuak desegiteko. Ardiaren eran amak daude beeka, zeren bee egiteko asti gabe galdu dituzten semiak. Aundia baita martirio au, arrigarizko ikustekua; bide gabe ateratzen dira kutxilluak eta gorrituzten dira. Inori jaiio danak indar egin gabe, errabian jartzen ditu inbidiak.

»Seme aien amak ikusten ditugu arkumetxua galdu zaion ardiyaren gisa. Diadar, negar-karraxi guztizkua aditu da toki-garaian (Raman.) Dira Semiak ez inorenak, baizik nor bere amak aziak ez utziak, baizik orañ arriskuan jarriak.

»Naturaleza osua illun zeguan, martiri aiekin hatera borruka, tiranua illtzen zituanian aurrak. Buruko illiak nasturik zebiltzan amak, onela galtzen zutela beren apainduria ura. Zenbatxe alegiaz saiatutzen ziran beren semiak gordetzen, beren buruak salatzen zituzten aurrak ezin ixilik egonik. Bildurra zer dan artian etzekiten, argatik ixiltzen etziraden. Aurra- ren ama ta borrrerua borrukutzen ziran aldiz; bata tira ta bestiak eutzi; diadarrak esaten zion amak: zer dala kentzen didazu nik nere sabelian iduki detan semia? Nigandik jaiio bazan eta, eztiot alper gaiztuan bularra eman, orañ zuk martiri illtzeko. Nik arreza guztiaz gorde detana, zuk kentzen didazu esku gogorrarekin! Oraindik egun gutxi dira nere erraiak argitara eman dutela ori, eta zuk lurrera botatzen dezu.

»Beste ama batek ikustian lapur aurren illtzailliak, uzten ziola bizirik, oiuka esaten zion: zergatik ni uzten nazu bizirik? Obenik bada, neria da; ezpada obenik, ill gaitzatu elkarrekin eta libra nazazu pen onetatik. Beste



bat berriz: noren billa zabiltzate? Baten billa zabiltzate eta asko iltzen dituzute. Bat da billatzen dezutena eta bat ori ezin atxitu dezute. Beste ama batek biotzez esaten zuan: atoz, atoz aguro, munduko Salbatzallia, noiz arte ibilliko dira zure billa? Iñoren bildur etzerana; ikusi zaitzala soldaduak eta iñoren ezpatak ez ditzala gure semiak ill. Amen negarrak nas-tutzen ziran eta bitartian semien eskaintza zerura igarotzen zan».

Onela itzegiten da Aita San Agustin. Ez ote dio gure Jaungoigoi-kuak aur garbi aien garaimenari begiratuko? Bada, aur inozentia joan zaizkigu zerura! Bai begiratuko dio.

Laster ikusi zan Herodes gaiztuarengan Jaungoikuaren justiziazko esku pisua. Konzientziako korapillua ezin askaturik; gosiak, ezertxorekin ere ezin ase zala; errai guztiak miñ-oñazez biyurriturik; alderdi denak ikaraz; iñork aren asnasa eraman ezinik eta bere gorputzeko zauriak botatzen zuten kiratsa ta aren eztiatik irtetzen ziran ar zuri-beltzak goguan denak jotzen zituala.

Ona emen Herodes. Ona emen Jesus aurraren pertsegitzallia. Ona emen eunta berrogei milla semetxori bizia kendu ziona, Jesus ill nairik.

Azkenik bada desesperatu zuan. Beñ baño geiagotan ken izan zioten burni zorrotza eskutik, bere burua illtzeko asmuari artuta zeukana. Ill zan bere orduan, usteldurik, arrak zerizkiola gopurtzetik, desesperaturik, martxuaren ogeita bostian, berak ainbeste pertsegitu zuan Jesus Jaungoikuaren semia gizon egin zan egunarekin. Badago emen ere ze pensa. Batetik aurren martiriua eta bestetikan Herodes ta onen antzekuen gogorkeria.

ZORTZIGARREN EGUNA

Aingeruaren aginduz aldatzen da pamili sagradua Ejitotik Nazareta.

Belendik Ejitora ,juateko egin zituzten pamili sagraduak berrogei legua bide.

Ebanjelioan etzaigu esaten zer egin zuten edo nola bizi izan ziran Egiton.

Sinistatu banezakegu, genezakegun bezela, gure asabak digutena, pamili sagradua bizitu zan Ejiton Matarea esaten zioten leku batian. Andikan alderatxo Leontopolisen arkitzen zan Jaungoiko egiazkuari eskaiñitako tenplo bat, Onias apaiz-nagusiaren denboran egiña, Jerusalemgo tenpluaren orman.

Jesus, Maria ta Jose bizi ziran, ez etxe ederrian, ez jauregi aberatsian, baizikan lur zulo batian. Ona nola itzegiten zaigun bizi-leku ura ikusi duan bat. «Santa Helenak egin zuan pamili sagradua bizitu zan tokiaren gañian elizatxo bat, oraiñdin ere ikusten dana. Lur zulo artara bada jeisteko daude amar edo amabi malla. Bizi-lekuak ditu ogei oñ luze ta amabost zabal. Etzan noski leiorik, ez bazan nun eginik, berak sartutzen ziran atetik zijuan argiya zuten bakarrik.

»Lur zulo ark zeukan inguruan buztinezko parete edo argamasa beltz bat. Onek digu ematen aditzera txit pamili biartsuaren bizitza zala ura. Toki garaitxo batian ikusten da zulo bat iru-lau oñ luze ta bi-iru zabal dana. Antxen lo egiten zuan Jesus aurrak. Etxe zulo aren eskuiko aldetik dago putzu bat nundik ere ateratzen zuten familiarako biar zuten ura. Ezkerreko aldetik dago arrizko eser-leku bat ogein bat ontza luze ta amabin bat zabalekua; antxen iñoiz exeriko zan Maria bere semetxuarekin».

O ze bizimodu pobrian bizi izan ziran Ejiton Jaungoikuaren seme-aurra, Zeruetako erregeña Maria eta bere esposo zorioneko Jose! Ai! eta ze ejenplua ematen diguten!

Aita S. Jose, dudarik gabe, saiatuko zan bere ofizioko lanian eguneroko ogia irebazten, eta Joseren izerdiarekin ta agian errege Maguak eman zienarekin, mantendu ziran an egondu ziran denbora guztian. Baña etzira-den betiko Ejitora joanak.

Herodes ill zanian, agertu zitzaion Ejiton aingerua Joseri, ta esan zion: «jeiki zaite, ar itzatzu aurra ta bere ama, eta zuaz Israelko lurrera, zeren ill diraden aurraren billa zebiltzanak ill naian».— Beriala jeiki ta



arturik aurra ta bere ama Josek, biurtu ziran Israel-ko errira; baña jakitian Herodesen seme Arkelaussek agintzen zuala, bere aitaren ordeztu Judean, (ezagaturik eta jakinik aren Aitaren gogortasuna) ikaratu zan aruntza joatiaz ta adia emanik berriro aingeruak, Galileara jo zuan eta Nazaret deritzon errian bizitu ziran; zete zedin onela igarlien esana: «deituko da Nazaretkua».

Ona emen, kristauak familiako buru danarentzat gogoramen-gai ederra. Maria ikusten degu Joseren mendian. Kontu-abisu denak Joserekin ditu aingeru ederrak.

Joseri esaten dio Ejitora joateko. Joseri Ejitotik irteteko. Joseri Jerusalem utzita Nazareta juateko. Iduki zuan ta gorde Jesus Josek bai Belenen, bai Ejiton, ta bai Nazaret-en eta guardatu zuan leku guztietan, familiako burua zan bezela. Beraz Josek izandu zuan beti Jesus ta Mariaren kargua, zeren familiako buruztat ezabutzen zuan zeruak. Jesus eta Maria Joseren mendian bezela, emaztiak biar du izan senarrarenian. Izan bedi ordia senarra Jose bat.

Zorioneko gizon au izan bazan ere zeruko errege ta erregiñaren buru, bizitu zan pobre, langille ta miserian bere famili jator zerukuarekin. Eta alere, kontentu!— Eta; gu, aien gloriak gozatu nai degunok, nai degu bizi ez aien antzera, baizik gure griñen erara! Aiek pobre biartsuak, gu aberats; aiek arlote, gu lujuan; aiek penetan, negarrez, gu pestetan, algaraz. Eta geiago dana aien onaren inbidiaz; ezertxotan edo txit gauza gutxitan aiek eraman zuten bidiari jarrai gabe! Erokeriya bada au, ezta txikia.

O Jose bedeinkatua! O famili sagraduaren burua! eman igizu indarra familian zure antzekua izateko, ta zu guztian idurituaz, munduko penatsekabiak eramateko. Onela zuk idiki ziguzun bidiari jarraituaz, gerta gaitzen gloria batian alkarrekin. Amen.

BEDERATZI-GARREN EGUNA

Jesus aurra Jerusalemgo Tenpluan.

Igaro ziran berrogei egun Jesus jaio zanetik, eta Moisesen legiak agintzen zuan bezela, Mariak jaiotzean zuan Jerusalemgo tenplora, Eliz-sartzia egitera. Etzeukan batere jaiotzean zuan berririk, zeren etzan beste emakumiak bezela pekataria, baizikan garbia eguzkia bezela. Baña Mariaren garbitasuna zan jendiaentzat misterio bat; beragatik ezin zitekian egon jaiotzean gabe, zeren etziokan jendia itz-biderik eman nai. Denbora berian eman digu, bere umiltasun onekin ejenplu bat txit ona.

Beste lege batek agintzen zuan berriz «jaiotzean zuan seme bat, Jaungoikuari esker onak emateagatik, eta Ejitotarren seme-lenenen erioztaren oroimenagatik eta Israeltarrenenak guarda zitualaloz salbo, eskaiñi zeiotela Jaungoikuari seme lenen jaiotze ura».

Lege onek ere etzuan Jesus ezertara biartzen; zergatik ez erosiya izateko, baizik berak bere odolaregin gizona erosteko etorri zan mundura. Baña berak nai izan zuten lege onen azpian jarri ta gogoz jaiotzean Jerusalemgo tenplora, bere Aita zerukuari eskaintzera bitima bezela oraiñ, gero gurutzian sakritikatuko zana.

Jaiotzean beraz Jerusalem. Asteko zeguan apaizak, Josek adia emanik, artu zuan Mariaren eskaintza, bi usa-tortola; eta egiñik orazio Mariaren gain, sartu zuan barruna, ta Mariak eta Josek eskaiñi zioten aurra Jaunari, pagatzen zutela denbora berian legiak agintzen zituan bi ontza ta erdi zillar, au da: berrogei ta hamar errial.

Jerusalemgo jende guztiaren artian, anima piadosa banaka batzuek bakarrik merezitu zuten Jesus ezagutzia. Guztien artian geiena merezi izandu zuan mesede au Simeon santuak.— Au zan aspaldiko denboretan Jesusen etorrerari begira zeguana, zeñak biar zuan salbatu Israel-ko erria ta libratu gizona pekatutik.

Simeon apaiz edade aundiko beneragari oni agertu zion Izpiritu Santuak etzala illko, Kristo Jaunaren untatua, ikusi gabe. Osta ikusi zuan aurra Simeonek tenpluan ta esan zuan: ona emen ainbeste ikustia nik desiatu izan detana; ona emen Mesias; ona betetik Igarlien esanak; ona gure libratzallia; ona gizonaren zoriona egingo duana. Artu zuan Jesus aurra Mariaren besotik eta jatorik begiak eta biotza zeruronz, abiatu zan kantuz Jauna alabatzen. Bere lurreko desiuak bete ziran eta zeruko patriari begira jarrita, munduari agur egin zion onela: oraiñtxen bai, Jauna, zure



serbitzaia pozik ta biyotzeko pakiarekin zuregana juango dala; zeren nere begiak ikusi duten zuk bialdi diguzun salbatzallia.

Beste gauza eder asko esan zituan orduan Simeon beneragarriak etorkizunian egiztatu ziranak. Bitarte artan Aita ta Ama zeuden arriturik guztiya aditzen. Baña itz gozo aien ondorian aditu biar izan zuan Mariak beste itz bat txit somindu ziona biyotza.

Bedeinkatu ondoren pamili eder ura, Mariani Jesus-aurra entregatzen esan zion Simeonek: «zuk besoetan darabiltzun aur ori etorri da mundura Israeltar askoren galerarako eta beste askoren onerako». Simeon Santuak aurrez ikusten du nola Jesusen dotriña anima Jaungoikotiak ondo adituko duten eta beragatik oetakuak txit on ta grazi ugariak aterako zituzten; baita beste askok nola arbuiatuko duten dotriña zeruko au, eta nola sinistatu nai ezik altxatuko ziran egiaren kontra, eta ainbesteraño eze azkenik kenduko zioten Jekusi bizitza gurutze batian eta aren golpe-miñ bakoitza izango zala Mariaren biyotza martirizatuko zuena, ezpatarik zorrotzenak baño areago. O Maria! oraiñ zorionekua, dio Simeonek, dolorezko ezpata batek igaroko dizu biyotza!

Oraiñ bada, kristauak, eska deiogun Jesus-aurrari; gure animak izan ditezela tenplo santu batzuek bere grazia ta adiskidetasuna gordetzeko. Baita ere egin gaitzala justuen arteko.

Pekatarien okerrak zuzentzeko artu zenduan, Jesus, pekatariaren antza; gu gera audienak denen artian.

Nere animaz, Jesus aurra, errukitu zaite arren. Dizdia dezala nigan zure errukiak. Bederatziurren au epel egin badet ere, indazu barkaziua ta desiatzen detan mesedia, au da: zu, Jesus-aurra, beti munduan adoratzeko ta glorian gero Zu ederra ikusteko. Amen.

AZKENA